

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzko dekretua

• Kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak errespetatzeko helburua duen dekretua onartu zuen 2008ko uztailean Eusko Jaurlaritzak. Dekretu honek betebeharrak linguistiko batzuk ezartzen dizkie hainbat erakunderi.

• DEKRETUAK ZEIN ERAKUNDERI ERAGITEN DIE BATEZ ERE:

- Establezimendu handiak
- Garraio enpresak
- Energia, gas eta antzeko enpresak
- ...

• ZEIN BETEBEHARRAK EZARTZEN DITU:

- Idatzizko informazioa ematerakoan, euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dira
 - Seinaleztapen guzti
 - Errotuluak eta kartelak
 - Inprimakiak eta katalogoak
 - Kontratuak eta baldintza orokorren agiriak
 - Komunikazioak eta jakinarazpenak, nola baita ere fakturak aurrekontuak, eta abar.
- Ahozko informazioa eta publikoari zuzeneko arreta eskaintzerakoan
 - Megafonia bidezko informazioa euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko da.
 - Ahozko informazioa eta aholkularitza euskaraz eta gaztelaniaz emateko gai izan beharko dute enpresa eta establezimenduek.
 - Ahozko informazioa esaten denean, bitarteko telefoniko eta elektronikoen bidez ematen den informazioa ere esan nahi da



Lana euskaraz!

Informazio gehiago: http://www.euskadi.net/r33-2288/eu/contenidos/nota_prensa/kontsum_eskub_dekretua/eu_hps/kontsum_eskub_dekretua.htm

Elikarriketa • Xabier Elizegi. DEMAN Sako Euskara Planeko Koordinatzailea

1- Urrietako lehendabiziko enpresa izan da DEMAN euskara plan bat abian jartzen. Zer iruditzen zaizu? Ba egia esan, Euskara Plana martxan jarri ondoren jakin izan dugu hori horrela dela, eta nire lehen inpresioa harridurarena izan zen.



• Gaur egun, non euskararen normalizazioa nahiko garatua egon beharko lukeen, ikusi dezakegu lan arloa dela gure egunerokotasunaren alderdi erdaldunena, eta aldi berean gure bizitzaren denboraren herena edota gehiago hartzen diguna. Hori horrela izanik, euskararen normalizazioan aurrera egiteko, lan esparru hau jorrotzea oso garrantzitsua ikusten dut.

2- Zer lortu nahi du DEMANek euskara planaren bidez? Gure helburua da DEMANeko langileei eta kanpoko harremanei euskaraz egiteko aukera ematea. Hori oinarri hartuta, guk ere gure harritxoak jarri nahi dugu euskararen erabilera normalizatzeko bidean.

Buruntzaldeko plana 08-09

- 2008-2009ko egitasmoan arlo hauek landuko ditugu:

- **Enpresen unibertsoa sortu:** Buruntzaldeko enpresen datu-basea sortu nahi dugu etorkizunean izan ditzakegun lanetan bertara jotzeko.
- **Euskara Planen sustapena:** Buruntzaldeko hainbat enpresa bisitatzen eta euskara planen berri ematen jarraituko dugu.
- **Heziketa Zikloetako ikasleak informatzea:** ikasleekin hainbat hitzaldi-tertuila izango ditugu euskara plan eta enpresetako praktikaldien inguruan.
- **Komunikazio plana:** orain arte egindako komunikazio lanen balorazioa egingo dugu eta egitasmoaren inguruko komunikazio lanekin ere jarraituko dugu.